IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

# Lan poltsa
# *Bolsa de Trabajo*

# Toki Administrazioko idazkaritza, kontuhartzailetza eta diruzaintza
# *Secretaría, intervención y tesorería de Administración Local*

## Ariketa praktikoa
## Ejercicio práctico

**2017/11/04**

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**CASO 1 (6,5 puntos)**

Una **Mancomunidad** organiza unos **cursos de inglés avanzado para adultos**, a la vista de la carencia de estos cursos en el municipio y sus cercanías. Los cursos tienen un precio público que no supone actividad subvencional alguna de la Mancomunidad.

**Se requiere** ser mayor de edad, estar empadronado en municipio/s de la mancomunidad desde hace un año sin interrupción, y tener superado el nivel correspondiente al B1 del marco Europeo de Referencia para las lenguas.

**La convocatoria** de los cursos se publica el 30 de junio de 2017 (viernes). La solicitud, acompañada de la documentación precisa que justifique la concurrencia en el solicitante de los requisitos exigidos, habrá de presentarse en el plazo de 15 días hábiles desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria. Las solicitudes pueden presentarse de modo presencial o telemáticamente

**La adjudicación de plaza** en los cursos se producirá por orden de presentación de solicitudes. La adjudicación se produce por Resolución de la Asamblea de la Mancomunidad en fecha de 22 de septiembre de 2017.

CUESTIONES:

**1.** Iñaki Arregi presenta, presencialmente, solicitud para participar en los cursos, sin adjuntar certificado alguno sobre sus conocimientos previos de inglés. El Técnico de Cultura de la Mancomunidad propone que, a fin de agilizar la adjudicación de la convocatoria, se publique la relación de personas excluidas de la misma al mismo tiempo que se publique la adjudicación de plazas en los cursos convocados.
**Valore la proposición del Técnico de Cultura de la Mancomunidad.**

**2.** Jon Eskisabel remite un escrito, en el plazo de presentación de instancias, solicitando que se le extienda el plazo para concurrir en la convocatoria hasta el 7 de agosto, dado que va a realizar unos exámenes de idiomas en los que podría lograr el nivel que la convocatoria exige como requisito para concurrir en ella.
**Exponga la respuesta que ha de dar la Mancomunidad a esta solicitud de concesión de plazo hasta el 7 de agosto.**

**3.** Andoni Idiaquez alega haber obtenido certificado del Departamento de Educación del Gobierno Vasco equivalente al nivel B-1 de Inglés en convocatoria oficial realizada por ese Departamento (concreta los detalles al respecto), pero no aporta ninguna justificación de la obtención de ese certificado.
**Exponga la actuación que debe seguir la Mancomunidad.**

**4.** Josune Ostolaza presenta su solicitud por vía telemática. La adjudicación de las plazas en el curso se le comunica el 25 de septiembre, mediante un e-mail, que no ha obtenido plaza pero ha quedado en situación de segunda suplente por si se produjeren renuncias o no formalizaciones de matrícula.
**Valore la notificación realizada.**

**5.** Ane Garai no resulta adjudicataria de plaza y estima que ello no es correcto. Dado que eligió ser notificada telemáticamente, la notificación de la Resolución de la convocatoria se ha puesto a su disposición el 25 de septiembre en la plataforma telemática y ella accede al contenido puesto a su disposición el 10 de octubre de 2017.
**¿Puede presentar algún recurso o reclamación? Razone la respuesta.**

**1 KASUA (6,5 puntu)**

**Mankomunitate** batek **helduentzako maila aurreratuko ingeles-ikastaroak** antolatu ditu, herrian bertan eta inguruetan halako ikastarorik ez dagoela ikusita. Ikastaroek prezio publikoa dute, baina horrek ez dakar diruz lagundutako jarduerarik Mankomunitatearen aldetik.

**Baldintzak**: adinez nagusi izatea, mankomunitateko udalerri batean/batzuetan erroldatuta egotea azken urtebete osoan jarraian, eta hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuko B1 mailari dagokion maila gaindituta izatea.

Ikastaroen **deialdia** 2017ko ekainaren 30ean (ostirala) argitaratu zen. Eskaera, eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriekin batera, 15 egun baliodunneko epean aurkeztu beharko da, deialdia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Eskaerak presentzialki edo modu telematikoan aurkeztu daitezke.

Ikastaroetarako **plazak** eskaerak aurkeztutako hurrenkeraren arabera **esleituko dira.** Esleipena Mankomunitatearen Batzarraren ebazpen baten bidez egin zen, 2017ko irailaren 22an.

GALDERAK:

**1.** Iñaki Arregik ikastaroetan parte hartzeko eskaera presentzialki aurkeztu zuen, baina ingeleseko aldez aurreko ezagutzaren egiaztagiririk aurkeztu gabe. Mankomunitateko kultura-teknikariak proposatu zuen, deialdiaren esleipena ahalik eta azkarren egite aldera, deialditik baztertutako pertsonen zerrenda eta deialdiko ikastaroetarako plazen esleipena aldi berean argitaratzea.
**Baloratu Mankomunitateko kultura-teknikariaren proposamena.**

**2.** Jon Eskisabelek idazki bat bidali zuen, instantziak aurkezteko epearen barruan. Deialdian parte hartzeko epea abuztuaren 7ra arte luzatzeko eskatzen zuen, hizkuntza-azterketa batzuk egin behar baitzituen eta deialdian parte hartzeko eskatzen zen maila lor zezakeela uste baitzuen.
**Azaldu zein den Mankomunitateak eman behar duen erantzuna, epea abuztuaren 7ra arte luzatzeko eskaera dela eta.**

**3.** Andoni Idiaquezek alegatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako deialdi ofizial batean (horri buruzko zehaztasunak ematen zituen) Ingeleseko B-1 mailaren baliokidea den ziurtagiria atera zuela, baina ez zuen aurkeztu ziurtagiri hori lortu izanaren egiaztagiririk.
**Azaldu nola jokatu behar duen Mankomunitateak.**

**4.** Josune Ostolazak modu telematikoan aurkeztu zuen eskaera. Ikastaroko plazen esleipena irailaren 25ean jakinarazi zitzaion, e-mail baten bidez; esaten zitzaion ez zuela plazarik lortu, baina bigarren ordezko gisa geratu zela, norbaitek plazari uko egin edo matrikula formalizatu gabe utziko balu ere.
**Baloratu egindako jakinarazpena**

**5.** Ane Garairi ez zitzaion plazarik esleitu, eta uste du hori ez dela zuzena. Jakinarazpenak modu telematikoan jasotzea aukeratu zuenez, deialdiari buruzko ebazpena irailaren 25ean jarri zitzaion eskuragarri plataforma telematikoan; plataforman jarritako eduki horretara 2017ko urriaren 10ean sartu zen.
**Jarri dezake inolako errekurtsorik edo erreklamaziorik? Eman itzazu erantzunaren zergatiak eta arrazoiak.**

**CASO 2 (6,5 puntos)**

En el Ayuntamiento de XXX, municipio que se encuentra dentro de la Comunidad Autónoma del Pais Vasco, que actualmente cuenta con 4.500 habitantes de población de derecho, y con un presupuesto total de 8.000.000 (ocho millones) euros de los cuales 5.000.000 (cinco millones) euros son de recursos ordinarios.

Se celebra una **sesión plenaria extraordinaria** el lunes 18 de septiembre de 2017,a las 10.00 horas dicha sesión fue convocada el jueves 14 de septiembre de 2017, a las 8.00 horas de la mañana. A dicha convocatoria se acompañó el orden del día, haciendo constar que la documentación se encontraba en secretaria a disposición de los señores concejales.

En dicha sesión se adoptaron una serie de acuerdos, todos ellos por mayoría simple, obtenida por los votos mayoritarios del grupo municipal que gobierna y la abstención del único grupo municipal de la oposición; y que son los siguientes:

1.- Aprobación de la modificación de la RPT para la ampliación de cuatro plazas de agentes de policía local como personal laboral, con la intención de iniciar el proceso de selección en el mes siguiente, para lo cual, también se acordó la aprobación de las bases de selección de dicho personal y se dio inicio al expediente de selección.

2.- La desafectación de unas instalaciones que estaban destinadas a colegio público y que son de titularidad municipal, pasando a adquirir la condición de bien patrimonial.

3.- Inicio del expediente de enajenación de local de 2.000 metros cuadrados por importe de 1.260.000 €.

Una semana más tarde, en la **Junta de Gobierno Local** en sesión ordinaria celebrada el lunes 25 de septiembre de 2017, que previamente había sido convocada el viernes 22 de septiembre de 2017, se adoptaron entre otros los siguientes acuerdos:

A) Adjudicación del contrato para el mantenimiento de los equipos informáticos del Ayuntamiento por un importe anual de 6.001 Euros a la empresa LUXOR S.A. y por un período de seis años.

B) Aprobación inicial de expediente de revisión del planeamiento general e inicio del expediente de participación pública.

C) Aprobación inicial del presupuesto para el ejercicio 2018.

PREGUNTAS

1.- Analice la legalidad y la validez de las convocatorias.

2.- Titulo de atribución de competencias ejercidas en los acuerdos adoptados y posibilidad de delegación por el Alcalde y el Pleno.

**2 KASUA (6,5 puntu)**

XXXko udalerria Euskal Autonomia Erkidegoan dago. Zuzenbidezko biztanleak 4.500 dira. Udalaren aurrekontua 8.000.000 (zortzi milioi) eurokoa da, guztira. Horietatik, 5.000.000 (bost milioi) baliabide arruntak dira.

Udal horretan **ezohiko osoko bilkura** egin zen, 2017ko irailaren 18an (astelehena), 10:00etan. Bilkura-deia 2017ko irailaren 14an (osteguna) egin zen, goizeko 08:00etan. Deialdiarekin batera gai-zerrenda bidali zen, eta zehazten zen zinegotziek dokumentazioa idazkaritzan zutela eskuragarri.

Bilkura horretan zenbait erabaki hartu ziren, guztiak gehiengo soilez, gobernatzen duen udal-taldearen aldeko botoekin eta oposizioko udal-talde bakarraren abstentzioarekin. Hauek dira erabakiak:

1.- LPZren aldaketa onartzea, lau udaltzain-plaza gehiago sortzeko, lan-kontratuko langile gisa, eta hautaketa-prozesua hurrengo hilabetean hastea. Hautaketarako oinarriak onartzea ere erabaki zen, eta hautaketa-espedienteari hasiera eman zitzaion.

2.- Ikastetxe publiko izateko destinatuta zeuden udal-titulartasuneko instalazio batzuk desafektatzea, ondare-ondasun izatera pasatzeko.

3.- Hasiera ematea 2.000 metro karratuko lokal bat 1.260.000 €an besterentzeko espedienteari.

Handik astebetera, **tokiko gobernu-batzarrean**, 2017ko irailaren 25ean, astelehenean, egindako ohiko bilkuran (bilkura-deia 2017ko irailaren 22an, ostiralean, egin zen), erabaki hauek hartu ziren, besteak beste:

A) Udalaren ekipo informatikoen mantentze-lanak egiteko kontratua esleitzea, LUXOR S.A. enpresari, sei urterako. Urteko zenbatekoa: 6.001 euro.

B) Plangintza orokorra berrikusteko espedientearen hasierako onespena, eta parte-hartze publikorako espedienteari hasiera ematea.

C) 2018ko ekitaldirako aurrekontuaren hasierako onespena.

GALDERAK

1.- Aztertu deialdien legezkotasuna eta baliozkotasuna.

2.- Hartutako erabakietan egikaritu diren eskumenen atribuzio-titulua, eta Alkateak eta Osoko Bilkurak delegatzeko duten aukera.

**3 KASUA (7 puntu)**

XXXko Udalean, 2016ko abenduaren 31n, hau da aurrekontuen exekuzio-egoera:

EKITALDI HONETAKO DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA, 2016/12/31N

| Kapitulua | Deskribapena | Hasierako aurreikuspenak | Behin betiko aurreikuspenak | Onartutako eskubide garbiak | Diru-bilketa garbia | Kobratzekoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I | Zuzeneko zergak | 1.000 | 1.000 | 1.000 | 900 | 100 |
| II | Zeharkako zergak | 320 | 320 | 280 | 50 | 100 |
| III | Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 360 | 360 | 315 | 280 | 35 |
| IV | Transferentzia arruntak | 670 | 670 | 660 | 580 | 80 |
| V | Ondare-sarrerak | 40 | 40 | 40 | 40 | 0 |
| VI | Inbertsioak besterentzea | 60 | 60 | 60 | 60 | 0 |
| VII | Kapital-transferentziak | 1000 | 1000 | 1000 | 1000 | 0 |
| VIII | Aktibo finantzarioak | 0 | 150 | 0 | 0 | 0 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

EKITALDI HONETAKO GASTUEN EGOERA-ORRIA, 2016/12/31N

| Kapitulua | Deskribapena | Hasierako kredituak | Behin betiko kredituak | Obligazio onartuak | Egindako ordainketak | Ordaintzekoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I | Pertsonal-gastuak | 1.100 | 1.100 | 950 | 900 | 50 |
| II | Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak | 1.200 | 1.350 | 1.350 | 1.350 | 0 |
| III | Finantza-gastuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IV | Transferentzia arruntak | 120 | 120 | 120 | 120 | 0 |
| V | Kreditu globala eta aurreikusi gabeko beste batzuk | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| VI | Inbertsio errealak | 1000 | 1.000 | 750 | 625 | 125 |
| VII | Kapital-transferentziak | 30 | 30 | 0 | 0 | 0 |
| VIII | Aktibo finantzarioak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IX | Pasibo finantzarioak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

Kontuan hartu beharreko beste datu batzuk:

- Diruzaintzako funts likidoak, 2016/12/31n, 290 dira.
- Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak, 2016/12/31n , 480 dira, eta horietatik 360 kobrantza zalantzagarrikoak dira.
- Itxitako ekitaldietatik ordaintzeke dauden obligazioak, 2016/12/31n, 250 dira.
- Saldo hartzekodun bat dago, 20koa, aurrekontuz kanpoko Ogasun Publikoa kontzeptuan; aurrekontuz kanpoko kontzeptuetan saldo zorduna, berriz, 0 da.
- Ez dago oraindik aplikatu gabeko kobrantzarik, ezta ordainketarik ere.
- 2016ko ekitaldian, ez da deuseztatu aurreko ekitaldietan onartutako obligaziorik, ezta aurreko ekitaldietan onartutako eskubiderik ere.

- 2016ko ekitaldian, aurrekontu-aldaketa bakar bat onartu da (zenbatekoa: 150), kreditu gehigarri gisa. Oso osorik finantzatu da gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin, II. Kapituluko (ondasun arruntak eta zerbitzuak) gastuei aurre egiteko, eta guztiak ordainduta daude 2016/12/31n.
- Gastuen egoera-orriko VI. kapituluak aurrekontu-aplikazio bat du kontsignatuta udaletxe berria eraikitzeko (zenbatekoa: 1.000), zeina oso osorik bi diru-laguntzarekin finantzatuko baita: bata, Foru Aldundiaren diru-laguntza, (% 75) eta, bestea, EAEk emandakoa (% 25). 2016/12/31n, Udaletxea eraikitzeko lanetan, obraren % 75aren ziurtagiria emanda dago; obrak 2017ko ekitaldian amaitu behar dira.
- Finantzaketa-desbideratze metatua bat dator 2016ko ekitaldiari egoztekoarekin.

ESKATZEN ZAIZU:

A) Finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzea, agenteka, 2016/12/31n.

B) Aurrezki garbi doitua kalkulatzea, 2016/12/31n.

C) Aurrekontu-emaitza kalkulatzea, 2016/12/31ra doituta.

D) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzea, 2016/12/31n.

**CASO 3 (7 puntos)**

El Ayuntamiento de XXX, presenta a 31 de diciembre de 2016, el siguiente estado de ejecución de su presupuesto:

ESTADO DE INGRESOS DE EJERCICIO CORRIENTE A 31/12/2016

| Capítulo | Descripción | Previsiones Iniciales | Previsiones definitivas | Derechos. reconocidos netos | Recaudación neta | Pendiente de cobro |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I | Impuestos directos | 1.000 | 1.000 | 1.000 | 900 | 100 |
| II | Impuestos indirectos | 320 | 320 | 280 | 50 | 100 |
| III | Tasas y otros ingresos | 360 | 360 | 315 | 280 | 35 |
| IV | Transferencias corrientes | 670 | 670 | 660 | 580 | 80 |
| V | Ingresos patrimoniales | 40 | 40 | 40 | 40 | 0 |
| VI | Enajenación de inversiones | 60 | 60 | 60 | 60 | 0 |
| VII | Transferencias de capital | 1000 | 1000 | 1000 | 1000 | 0 |
| VIII | Activos financieros | 0 | 150 | 0 | 0 | 0 |
| IX | Pasivos financieros | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

ESTADO DE GASTOS DEL EJERCICIO CORRIENTE A 31/12/206

| Capítulo | Descripción | Créditos Iniciales | Créditos definitivos | Obligaciones Reconocidas | Pagos realizados | Pendiente de pago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I | Gastos de personal | 1.100 | 1.100 | 950 | 900 | 50 |
| II | Gastos en bienes corrientes y servicios | 1.200 | 1.350 | 1.350 | 1.350 | 0 |
| III | Gastos financieros | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IV | Transferencias corrientes | 120 | 120 | 120 | 120 | 0 |
| V | Crédito global y otros imprevistos | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| VI | Inversiones reales | 1000 | 1.000 | 750 | 625 | 125 |
| VII | Transferencias de capital | 30 | 30 | 0 | 0 | 0 |
| VIII | Activos financieros | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IX | Pasivos financieros | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

Otros datos a tener en cuenta:

- Los fondos líquidos de tesorería a 31/12/2016 ascienden a 290.
- Los derechos pendientes de cobro de ejercicios cerrados a 31/12/2016 ascienden a 480, de los cuales 360 son de dudoso cobro.
- Las obligaciones pendientes de pago de ejercicios cerrados a 31/12/2016 ascienden a 250.
- Existe un saldo acreedor en el concepto no presupuestario de Hacienda Pública por importe de 20, mientras que el saldo deudor en conceptos no presupuestarios es 0.
- No existen cobros ni pagos pendientes de aplicación.

- No han sido anuladas en el ejercicio 2016 ninguna obligación reconocida en ejercicios anteriores ni ningún derecho reconocido en ejercicios anteriores.
- En el ejercicio 2016 se ha aprobado una única modificación presupuestaria por importe de 150, como crédito adicional financiado íntegramente con remanente de tesorería para gastos generales, destinado a afrontar gastos del capítulo II (bienes corrientes y servicios) y que han sido pagados en su totalidad a 31/12/2016.
- El capítulo VI del estado de gastos tiene consignado una aplicación presupuestaria para construir el edificio de la nueva casa consistorial por importe de 1.000, que va a ser financiada íntegramente por dos subvenciones: una subvención de la Diputación Foral al 75% y otra al 25% de la CAPV. A 31/12/2016 se ha certificado el 75% de la obra de la Casa Consistorial, debiendo concluirse en el ejercicio 2017.
- La desviación de financiación acumulada coincide con la imputable al ejercicio 2016.

SE PIDE:

A) Calcular las desviaciones de financiación por agente a 31/12/2016

B) Calcular el ahorro neto ajustado a 31/12/2016

C) Calcular el Resultado presupuestario con ajustes a 31/12/2016

D) Calcular el Remanente de tesorería para gastos generales a 31/12/2016